OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA
idazkaritza@onati.eus
Telefonoa: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

LARRAÑA AUZOA 16 ZENBAKIAN PUMPTRACK KIROL INSTALAZIORAKO IRISGARRITASUNA BERMATZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN LANAK KONTRATATZEA

2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116. artikuluak xedatutakori jarraituz, *Larraña auzoa 16 zenbakian pumptrack kirol instalaziorako irisgarritasuna bermatzeko urbanizazioa* eraikitzeko lanak kontratatzeko prozeduraren barruan ondorengo justifikazio-txostena egin da.

KONTRATAZIOAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Sektore publikoko administrazioek soilik beraien xede instituzionalak betetzera zuzendutako kontratuak gauzatu ahal dituzte (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea)

2019-2023 legealdiko kirol ekipamenduen plangintzaren baitan, Zuazola-Larraña LHI institutuko laursailean pumptrack pista eraikitzeko obra kontratatzea erabaki zuen Udalak, 2023ko abenduaren 21ean.

Aipatutako instalaziorako argiteria eta irisgarritasuna bermatzeko urbanizazio osagarria jasoko duen proiektuaren idazketa esleitu zion Udalak Mikel Altube arkitekto teknikoari, 2023ko urriaren 11n.

Eskatutako proiektua aurkeztu du orain enpresak. Horren arabera, 3,5 m zabalera inguruko bidea eraikiko da, asfalto akabera izango duena. Horrekin batera, dagozkion segurtasun neurriak eta argiteria egokituko da: 4 argi puntu bidean eta, pumptrack-a argitzeko, 3 eraikinetako fatxadetan. Proiektuaren aurrekontua 93.188,93 €-koa da, BEZ kanpo, eta obrak egiteko epea 8 astekoa.

Bestalde, lanak egiteko baimena eman du partzelaren titularra den Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 2023ko azaroaren 7an.

Obra kontratu honen helburua, hala nola bere edukia, arestian deskribatutako lanak gauzatzeko egokiak dira.

CPV kode nagusia: 45233140-2

Lanek erlazio zuzena, argia eta proportzionala dute obra kontratuaren helburuarekin.

KREDITU NAHIKOA IZATEA

*Larraña auzoa 16 zenbakian pumptrack kirol instalaziorako irisgarritasuna bermatzeko urbanizazio pro*iektuko lanak egiteko 1.1100.601.153.03.01.2024 (Pump-track-eko urbanizazioa) kontu saila onartuko du Udalak, abian den gehigarrien kreditu-aldaketarako espedientearen arabera.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

AURREKONTUA

Gehienezko aurrekontua 93.188,93 €-koa izango da, BEZ kanpo (112.758,60 €, BEZ barne).

Aipatutako aurrekontua proiektu teknikoak jasotzen duen exekuzio materialerako aurrekontuan oinarritzen da. Horrela, obra exekutatzeko beharrezkoak diren obra-unitateak zehaztu, bakoitzarendako neurketak definitu eta prezio unitarioengatik biderkatuta lortzen da aurrekontua.

Exekuzio materialaren aurrekontuari gehitu egiten zaizkio %13a gastu orokorretan eta %6a irabazi industrialetan.

Banakako prezioak ezartzerako orduan eraikuntza lanetako prezioen datu baseak hartu dira oinarri bezala.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia BEZa kenduta da 93.188,93 €.

URGENTZIAZKO EDO EMERGENTZIZKO IZAPIDATZEARI BURUZKO DEKLARAZIOA, BERE KASUAN

Ez dagokio.

ESLEIPEN PROZEDURAREN JUSTIFIKAZIOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 131. artikuluak xedatutakori jarraituz eta obra kontratuaren helburua eta balio zenbatetsia ikusita, esleitzeko prozedura ireki sinplifikatua edo erraztua jarraituko da.

LOTEETAN BANATZEA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99. artikuluak xedatutakori jarraituz, kontratuaren xedeak ahalbidetzen duen heinean, arau orokorra da kontratua loteetan banatzea

Era berean, aipatutako artikuluak xedatzen du, kontratuan jasotako prestazio desberdinen errealizazio independentea egikaritze zuzena zailduko balu, aukera ematen du lanen zatitzea ez ematea.

Kontratua ez da loteetan zatituko aurreikusitako lanen mota dela eta. Eginkizunak koordinatzea ezinbestekoa da, ikuspuntu teknikoa eta obren helburua kontuan hartuta. Lan tekniko horiek ez zatitzearekin, proiektua betetze aldera, lanon koordinazioa eta egikaritze epeak bermatzea lortu nahi da.

KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Kaudimen ekonomiko-finantzarioa honela frogatuko da: lizitatzailearen urteko negozio-bolumena (azken hiru urteetako negozio-bolumen handiena erreferentzia hartuta), kontratuaren balio zenbatetsia baino bat eta erdi handiagoa izan beharko da.

GAITASUN TEKNIKOA

Gaitasun teknikoa honela frogatuko da: azken bost urteetan egindako obren zerrendaren bidez, garrantzitsuenak ongi gauzatu izanaren ziurtagiriekin batera. Ziurtagiri horietan honako hauek adieraziko dira: obren zenbatekoa, noiz gauzatu diren eta non gauzatu diren. Halaber, lanbideko arauen arabera egin direna zehaztuko da, eta ongi bukatu izana. Agintaritza eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari.

Kontratista enpresa berri bat denean, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duena alegia, gaitasun teknikoa honela frogatuko da: obrak egiteko, zer makina, material eta teknikari-talde edukiko dituen zehazten duen adierazpenaren bidez, eta, adierazpenarekin batera, dagozkion egiaztagiriak aurkeztuta.

SAILKAPENA

Kontratuaren balio zenbatetsia 500.000 € azpitik dagoenez ez da beharrezkoa enpresaren sailkapena eskatzea, hala ere, kaudimena eta gaitasunerako ezartzen den sailkapenarekin frogatu ahalko da.

Grupo G (Viales y pistas).

Subgrupo 6 (Obras viales sin cualificación específica).

Categoría 1.

ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontuan izanda kontratua esleitzeko prozedura ireki sinplifikatua aukeratu dela, balio-iritzi bidez ebalua daitezkeen irizpideak ezin izango dute %25a baino gehiago izan.

Hortaz, honako irizpideak ezarri dira:

A) MATEMATIMA FORMULEN BIDEZ NEURTU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

*. Eskaintza ekonomikoa: 75 puntu. Proposamenik merkeenari 75 puntu emango zaizkio, salbu eta balio ez-normalak edo neurrigabekoak baditu. Ezinbestekoa izango da xehatutako proposamen ekonomikoa aurkeztea, erreferentzia-aurrekontua jarraituta.

Puntuaziorik handiena emango zaio prezio merkeen eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da gehiengo puntuazioari formula honetatik ateratzen dena: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da:

Pl=(Ob/Ol)x75

Non-eta:

Pl: lizitatzailearen puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikiena

Ol: lizitatzailearen eskaintza

*. Berme epea: 5 puntu. Puntu bat emango da obraren berme epea luzatzen den urte bakoitzagatik.

EXEKUZIORAKO BALDINTZA BEREZIAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202. artikuluak xedatutakori jarraituz, derrigorrezkoa da gutxienez kontratua gauzatzeko baldintza berezi bat ezartzea. Baldintza horiek bereziki ingurumen- edo gizarte-kontuei buruzkoak izan ahalko dira.

Hori guztia kontuan izanda, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko 3/2016 Legeak xedatutakoa hartu da oinarri bezala.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	pumptrack urbanizazio

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IÑAKI LANDA AZKOAGA - 78897269R
Data / Fecha: 2024/02/08 10:29:57